

## Magaleko istorioak

Maia Novoselskyy Jaka

EUSKARA NARRAZIOA 14-16 URTE

3. Saria

3 urte igaro ziren nire gurasoak hil zirenetik. Nire bihotzaren zati handi bat haiekin batera lurpean geratu zen hileta egun hartan. Malkoak masailetan behera zetozkidan unean bertan, elkarrekin igarotako une guzti haiek bururatzen zitzaizkidan. Amaiur dut izena, eta 16 urte bete berri nituen. Ama eta aita hil zirenetik, baserri zaharrean amona Maria eta biok bakarrik bizi ginen. Hark 94 urte zituen, eta nahiko heldua bazen ere, osasuntsu eta zoriontsu zegoen. Aitona ni gaztea nintzela hil zen eta anai arrebarik ez nuen, beraz nire familia bakarra bera zen. Haurra nintzenetik, sutondoan amonaren magalean eserita igarotzen nituen gauak. Ordutik, gauero-gauero jaitsi izan naiz egongela zaharrera bere istorio eta bizipenak entzutera. Arratsero kontatzen zidan zeinen ongi bizi ziren internet mugikor edo telebistarik gabe, auzokoekin harreman estua mantenduz beti. Haien egunerokotasunean gaztelaniaren kutsurik gabe, euskara hizkuntza bakarra zelarik. Nik betidanik amestu izan dut garai haietan jaio izana, bizimolde horiek guztiak neure bizitzan izatea, baina ez zen posible, beraz, beste gau batez sutondorantz abiatu nintzen. Egun hartan kontatu zidana ez zen nolabaiteko istorio bat, beti kontatzen zizkidan horietakoak; berezia zen, berehala antzeman bainuen kontatzeko modu eta jarri zituen aurpegiengatik gau hartako istorioa bere benetako bizipen bat zela. Hortaz, ezer esan gabe, bere ondoan eseri, eta arreta handiz aditu nuen. Entzuten nuen bitartean, geroz eta argiago nuen belaunaldi okerrean jaio nintzela. Istorioa entzun ondoren, nire logelara abiatu, eta ohean sartu nintzen. Alde batera eta bestera mugitu, burukoa lekuz aldatu, manta bat kendu; ezinezkoa zitzaidan lo hartzea. Azkenean, hainbat saiakeraren ostean lortu nuen, eta lo sakonean erori nintzen. Batek daki zenbat ordu neramatzan lo, agian bost, edo zortzi, baina txorien kantuak entzun nituenetik esnatu nintzen.

Ohetik jaso, artilezko galtzerdi lodiak jantzi, eta ezkaratzerantz abiatu nintzen. Nola zitekeen? arraro somatu nuen guztia. Gainera, hori gutxi balitz, beheko solairutik ahotsak entzuten nituen, nor ote? Jakin-min handiz behera egin nuen, eta oina eskaileran jartzearekin batera, egurrak sekulako za-

rata atera zuen. Behera iristean, aurretik ikusteko nituen haur eta heldu batzuk zeuden. Nortzuk ziren haiek, eta non zegoen nire amona? Erabat nahasirik, hura topatzen saiatu nintzen haien artean begiratu, baina ezer ez. Zer demontre? Halako batean, sukaldean zegoen emakumeak begiratu, eta erabat harrিতuta galdetu zidan:

–Aizu, Maria, zer ari haiz?

–Zer? Maria? Ez, ez, ni Amalur naiz, zu nor demontre zara?

–Hago ixilik eta hoa Karmeleri gosaria ematera!

Une hartan bertan ulertu nuen guztia. Nire baitan hainbestetan desiratu nuen hori egia bilakatu zen behingoz, amona Mariaren garaian bizitzeko aukera nuen, bera nintzelako! Amonaren istorioak egia bilakatu zirela zirudien. Hark kontatzen zidan moduan, zortzi anai arreba ziren, eta ni momentu hartan haietako bat nintzen, ezin nuen sinetsi. Beraz, mundu hura esploratu nahian, kalera jo nuen. Bertako isiltasuna harrigarria zen, ez nuen sekula horrelako lasaitasunik bizi izan. Ingurumena berdez jantzirik eta zerua oskarbi ikustean, nire barrenean gauza asko mugitzen ziren, baina behin eta berriz errepikatzen nion neure buruari benetan zeinen ederra zen guztia, sinestezina iruditzen zitzaidan. Ibilaldi luze baten ondoren, baserrira itzuli nintzen. Askok harritu ninduen seme-alabek askatasun asko izateak, baina egia da anai-arreba gehienek zuten adinerako helduagoak ziruditelako, gazte-gaztetatik etxeko lan eta abereekin lanean aritzen zirelako. Animaliak nire buruan nituen unean bertan, sekulako usain txarra zetorkidan, buaj! Noski! Ahazturik nuen jada etxean estarbia zutela, goizean nuen zirrararekin ez nintzen ohartu ere egin. Ni bizi nintzen baserrian ez nuen ukui-lurik ezagutu, suntsiturik zegoen. Beraz, eserita nengoen aukitik altxatu, eta baserriaren atzealde-rantz joan nintzen. Nabaria zen estarbitik geroz eta gertuago nengoela, animalien hotsak gertuago entzuten nituen, eta kiratsa hobeki antzeman nezakeen. Iritsitakoan, zur eta lur geratu nintzen. Behi, ardi, txerri, oilo... abere ugari zeuden. Egunak igaro ahala, familiarengandik gauza berri aunitz ikasi nituen. Egia esan, oso zaila egin zitzaidan benetan Amalur nintzela ezkutatzea, eta ez Maria; baina horrela garaiko ohitura, etxeko tradizio, eta hainbat gauza ezagutu nitzakeen. Auzoko baserriarrek zuten harremana oso estua zen, eta hori nire garaian ere mantentzen zela ikusteak asko poztu

ninduen. Norbaitek laguntza behar bazuen, auzokideek guztien artean laguntzen zuten trukean ezer espero gabe, komunitate pentsamendua zuten. Auzolanak ere ikusi nituen, eta hauek egungoak bezala ziren. Etengabe pentsatzen nuen munduak duela 80 urte bezala jarraituko balu, guztiak zoriontsuago biziko ginatekeela, baina tira! Egun batzuk baino ez ziren igaro, eta bertan bizitzera ohitzen hasirik nengoen jada, dena zen benetan hain zoragarria!

Goiz batez, esnatu eta egin beharrekoak egin ondoren, kalera atera nintzen baso aldera, berria zen zerbait miatzera. Ordu pare bat neramatzan oinez, eta nahiz eta apirilean egon bero ikaragarria egiten zuen, beraz, zuhaitz baten itzalpean etzan nintzen pixka batez. Handik denbora gutxira, entzuteko neukan zarata batek esnatu ninduen. Begiak ireki, eta zero oskarbian hegazkin asko ikusi nituen. Zenbatzen hasi nintzen: bat, bi, hiru, lau, bost, sei,... Hemeretzi zenbatu nituen gutxienez. Zer demontre? Beldurra gorputzean zebilkidan bitartean, baserrira ahalik eta azkarren iristea zen nire nahi bakarra. Lasterka denbora luzez egin ondoren, azkenean bertan nintzen, eskerrak. Anai-arreba guztiak beldur ziren, inork ez zekien zer gertatzen zen. Inork ez... nik izan ezik. Zer izan zezakeen susmatzen nuen, baina ez nuen ezer esan. Azken finean, Amalur nintzela ezkutuan mantendu behar nuen. Gurasoek seme alaba guztiak lasaitu, eta bazkaltzera deitu gintuzten. Nik ezin nuen horrelako lasaitasunarekin bizi, ez behintzat zetorrena zer zen jakinda. Eguna normaltasunez egin zuten, ez baitzen ezer arrarorik sumatu ingurunean, baina ni beldur nintzen. Gaur iristerakoan, neure buruari galdetzen nion, benetan guztia uste bezain ona zen, ala garai hark ba ote zuen alde txarrik ere. Pentsamendu horiengandik ihes egitea lortu nuen, eta lo sakonean erori nintzen.

–Seme-alabak, esna zaitetzte! Maria, Maria, jaiki hadi! –Amiñaren ama nire gelan oihuka sartu zen. Oraingoan zer ote? Beldurrez josirik, neure ahoa itxi nuen, berak hitz egin zezan.

–Zera, ba... Gernika bonbardatu dute, gaur goizean iritsi zaigu albistea. Jende mordo hil da, ez gaude batere seguru hemen. Heldu dira, heldu dira! –Hitz horiek ahoskatu bezain laster, beldurra, hotzikarak eta izua denon jabe egin ziren. Nire susmoak zuzenak ziren, ez nenbilen oker. Batek daki zenbat denbora igaro genuen etxetik atera gabe genuena baliatuz, baina bizpahiru egun bukaezin

behintzat bai. Ondoren zer etorriko zen banekien, eta ez zen batere ona. Neure burua horrenbeste nuen gorroto une hartan, zergatik nahiko nukeen hainbestetan garai haietan bizi izana? Ergel halakoa... Han nengoen ba, horren ondorioz, eta ez zen batere egoera ona. Amiña Mariaren aitak, Isidro, Frankisten aurka borrokatzera joateko eginkizuna zuen. Andresi, anai zaharrenari, esan zion edozer gauza zela eta, berari egokituko zitzaiola familiaz ardua hartzea, eta benetan egoera tamalgarri eta tristea zen bizitzen ari gina. Guztiok ohera joan ginen, egun luzeak izaten ari baitziren, eta gainera, hurrengo egunean, Isidro agurtu beharra genuen. Gaua joana zen, guztiak lo zeuden jada, eta baserria isil-isila zegoen halako batean soinu bat entzun nuenean. Egongelatik zetorren, eta ez zen seinale ona, ziur ezetz. Beraz, oinetakoak jantzi, eta hotsik atera gabe beheko solairura jaitsi nintzen. Berrero ere ez zen soinurik entzuten, isiltasuna egongelaz jabetu zen. Beraz, leihotik begiratu, eta nire birraitona zeramaten hiruzpalau gizon ikusi nituen, buru gainean txapel gorri bat zeramatela. Bitan pentsatu gabe, baserritik atera, eta hauek jarraitzea erabaki nuen. Basoan zehar gero eta gehiago sakontzen ari ziren, nora zeramatzen Isidro? Ilargi beteak bidea zertxobait argitzen zuen, eta nahiko ongi ikus nezakeen guztia. Halako batean, amildegi baten ondora iristean, bertan gelditu ziren. Segundo batzuk beranduago, txantxetan ibili gabe, nire birraitonari kopetan tiro bat jo zioten. Danba! Haien artean nola hitz egiten zuten entzutea lortu nuen, eta gaztelania hutsean ari ziren. Gertatu berri zena guztiz asimilatu gabe, baserrirantz abiatu nintzen, ez nengoen batere seguru bertan. Amonak 16 zituela hau guztia bizi ote zuen? Zergatik ez zidan sekula ezer kontatu? Galdera asko baina erantzunik ez. Une hartan, nire etxera itzultzea eta amona besarkatzea zen nahi nuen bakarra. Baina ez baserri hartara, nire baserrira baizik. Oinez nindoan, ahalik eta azkarren, baina bidea luze egiten ari zitzaidan, luzeegi. Halako batean, hots batzuk entzun nituen, eta begirada lurretik jaso orduko, txapel gorridun gizon batzuk nituen aurrean, aurretik nuen bakardade hura bereganatuz. Haiek ni ikusterakoan, batere eskrupulurik gabe, bekainen artean tiro egin zidaten. Hotza, beldurra, tristura, iluntasuna, bakardadea, lasaitasuna eta azaltzeko ezinezkoak diren sentimendu gehiago sentitu zituen nire arimak.

Halako batean, begiak kolpez ireki nituen, eta nire betiko logelan nengoen. Ez nintzen Maria, Amalur nintzen. Nolabaiteko lasaitasuna nuen neure baitan, bakea azkenean, baina kezka handia. Beheko

solairura jaitsi, eta amona egongelan topatu nuen. Besarkada erraldoia eman ostean, bere ondoan eseri nintzen.

–Amona... Ez dakit sinistuko nauzun, baina... Zure etxean egon naiz, zure bizitza eta bizipenak bizitu ditut. Zergatik ez didazu inoiz esan Gernikako bonbardaketa bizi izan zenuela? Eta, zure aita nola fusilatzen zuten ikusi zenuela? –Galdetu nion, kezkatuik.

–Egon lasai Amaiur, sinisten zaitut eta. Zera, ba zenbait gauza jakin gabe hobeto bizi garela ohar-tuko zara helduagoa zarenean, eta orduan bizitakoa horietako bat da. –Erantzun zidan, argi eta garbi. Ez nizkion bira gehiago eman gaiari, nahiago bainuen ikusitakoa ez birgogoratzea, baina birraitona Isidro ezin nuen burutik atera. Behin eta berriz agertzen zen irudi hura neure baitan. Luzaro ibili nintzen bizitako guztiaren inguruan pentsatzen, eta ez bakarrik garai haietako alde txarrei buruz, guztiz kontrakoa. Benetan tristea zen egungo egoera: gure arbasoek sortu zuten herria, gure teknologiapean hiltzen ari zen. Are eta tristeagoa zena, gure hizkuntza zen. Nola zitekeen frankismoak lortu ez zuena gaur egun teknologia berriek, eta belaunaldi gazteak lortzen aritzea? Pentsaezina zen, ezin nuen ulertu. “Horrela jarraitu ezker, belaunaldi berriek ez dute ez Euskal Herriarik ez Euskararik ezagutuko. Benetan iritsiko al zaigu etorkizun argitsu bat, sortzen ari garen orainaldi ilun honetan?” Etengabeko zalantzak neure buruan zehar. Horrenbeste galderen artean, jakintsuenari galdetu nion, amonari. Haren erantzuna izan zen Euskal nortasuna berreskuratu nahi bagenuen, zientzia eta teknologietan murgildu beharrean, euskaldunon hazia erein, eta landatzen jarraitu behar dugula. Ginena atzean utzita baina ahaztu gabe, eta izango garena etorkizunerako gordez, orain garena bizi behar dugula. Benetan mundua aldatzeko, bakoitza bere barnea aldatzen hasi behar da.